



Iturburu

etxebizitza

Aldacrak: Artizar
Ahozkoa:



43° 11' 30"

2° 35' 58"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Iturbegoitia (**Ikus Iturbegoitia**) eta *Iturbegana* (**Ikus Iturbegana**) etheen artean kokatzen den eraikin berria. Etxe hau 1982. urtean eraiki zen, eta orduan, eraiki zenean *Iturbegana* txaleta oraindik egin barik zegoen. Bizitza bakaurreko eraikin hau azken urteetan *Artizar* moduan ezagutua izan arren, jabeak prest agertu dira inguruko leku-izenekin bat datorren izena hautatzeko, eta hortik datorkigu *Iturburu* izena aukeratzearen erabakia.

Kontuan izanda ingurune horretan *Iturbe* izeneko baserriak egon zirela, zenbait dokumentutan zonalde hori "*Iturbes*" moduan izendatzen da. Beraz, Berriz aldean arrunta den *-buru* amaiera

hori hartzea erabaki dugu, *Iturbe* (**Ikus Iturbe**) baserriaren goialdean kokatzen den etxe horri erreferentzia egiteko.

Bi isurkitako teilatupean, etxe moderno baten egitura sumatzen da, nahiz eta tradizioan etenik ez duen egiten, harrizko kantalak eta atarte erara itxuratutako sarrera egin zizkiotelako. Sarrera antolatze gailurra erabili zuten, baina fatxada nagusia guztiz asimetrikoa da lurretako aldatsa aprobetxatuz etxea alderik baxuenera hedatu zutelako. Albo batean leiho bat erantsi diote, eta baita beheko solairua ere.

toponimia

Iturbegana kasuan bezala izen gardena da eta ez du bestelako azalpenik behar. Hala eta guztiz ere nabarmendu behar da izen zaharretan ohikoa dela iturri hitzak azken silaba galtzea eta itur- bihurtzea. Toponimian oso arrunta da hizkuntza guztietan gorputzaren zatiak erabiltzea eta denetan erabiliena burua da.